Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

**Resolución de 19 de diciembre de 2013, del director de la Agencia Vasca de Protección de Datos por la que se convocan los Premios a la Protección de Datos correspondientes a 2014**

La Agencia Vasca de Protección de Datos, de acuerdo con lo dispuesto en la Resolución del Director de fecha 28 de noviembre de 2005, y como prestadora de un servicio público, se ajusta a determinados criterios de actuación, entre los que se encuentra el consistente en otorgar una importancia fundamental al comportamiento proactivo, ayudando a las administraciones en el cumplimiento de la legislación y en el establecimiento de una nueva cultura en protección de datos.

En este sentido, la Agencia Vasca de Protección de Datos en el ejercicio de las competencias que la Ley le atribuye y con la finalidad de promover y fomentar la aplicación y la difusión del derecho fundamental a la protección de datos por parte de personas e instituciones, procede a la convocatoria de los Premios a la Protección de Datos correspondientes a 2014.

**Base 1.- Objeto y Finalidad**
La Agencia Vasca de Protección de Datos convoca la primera edición de los Premios a la Protección de datos personales para reconocer honoríficamente a las personas e instituciones que, mediante su actividad hayan realizado una aportación relevante en el área de la protección de la privacidad, en la profundización de su conocimiento y en la difusión de este derecho fundamental.

Se trata, en definitiva, de premiar a las personas e instituciones que se distingan por su sensibilidad hacia este derecho.

**Base 2. Premio**
Se convocan premios en las siguientes modalidades

- Premio a la trayectoria profesional más destacada dedicada a la defensa y promoción del derecho a la protección de los datos personales.
- Premio a organización del País Vasco que haya mantenido buenas prácticas en materia de protección de datos personales, incluso más allá de las exigencias legales en la materia.
- Premio al mejor trabajo publicado en medios de comunicación o en revistas científicas, relativo a las cuestiones relacionadas con la protección de datos y la privacidad.

Los premios se concederán, a criterio del Jurado, a las personas e instituciones que, por la labor realizada, se consideren merecedores de los mismos.

El Premio consistirá en una distinción honorífica y en un reconocimiento público. Los premios no tienen contenido económico.

**Base 3.- Jurado**
Los Premios los concede un jurado cuya composición será:

- Presidente: Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos.
- Vocales: Los miembros del Consejo Consultivo que se encuentren ejerciendo su mandato en el momento de efectuarse el fallo, más los responsables de la Asesoría Jurídica y del Servicio de Registro y Auditoría de Ficheros.
- La Secretaría corresponderá a la Secretaría de dicho Consejo.

En caso de empate decidirá la votación el voto del Presidente, salvo que se acuerde la concesión ex aequo.

**Base 4.- Resolución**
La decisión del Jurado, que podrá declarar desierto algún premio, se hará pública el 24 de febrero de 2014, día en el que se celebra el X Aniversario de la creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

En Vitoria-Gasteiz, 19 de diciembre de 2013

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA
AGENCIA VASCA DE PROTECCION DE DATOS

**Iñaki Pariente de Prada**
Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria /
Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos

**Ebazpena, 2013ko abenduaren 19koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarena, 2014ko Datuak Babesteko Sariak deitzen dituena**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, zuzendariaren 2005eko azaroaren 28ko Ebazpenaren arabera, zerbitzu-emaile publiko gisa, hainbat jarduera-irizpideei lotzen zaie; eta, esate baterako, jarrera proaktiboari funtsezko garrantzia emango dio, administrazioei legearen betearazpenean lagunduz eta datuak babesteko kultura berria ezarriz.
Horrenbestez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, legeak esleitzen dizkion ahalak baliatuz, eta pertsonen eta erakundeen aldetik datuak babesteko oinarrizko eskubidearen ezarpena eta zabalkundea sustatzeko asmoarekin, 2014ko Datuak Babesteko Sariak deitzen ditu.

**1. Oinarria.- Xedea eta Helburua**
Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Datuak Babesteko Sarien lehenengo edizioa deitu du, ohorezko goraipamena egiteko, pribatutasunerako oinarrizko eskubidea babesteko arloan eta eskubidearen gaineko ezagutza sakontzeko arloan edo zabalkundearen esparruan, garrantzi handiko ekarpenen bat egin duten erakundeei eta pertsonei.

Azken finean, eskubide honekiko sentsibilitatea agertzeagatik nabarmendu diren pertsonak eta erakundeak saritzea da helburua.

**2. Oinarria.- Saria**
Sariak honako bi modalitateak ditu:
- Datu pertsonalak babesteko eskubidearen defentsan eta sustapenean izandako puntako ibilbide profesionalari saria.
- Datu pertsonalak babesteko esparruan, legezko eskakizunez haratago ere, jardunbide onak erabili dituen Euskal Autonomia Erkidegoko organizazioari saria.
- Datu babesarekin eta pribatutasunarekin lotutako alderdiei buruz komunikabideek edo aldizkari zientifikoek argitaratutako lan onenari saria.

Sariak emateko, epaimahaiaren irizpideak hartuko dira kontuan, eta egindako lanagatik saria merezi duten pertsonei eta erakundeei emango zaie.

Sarituei jendaurrean gorazarre egingo zaie, eta ohorezko saria jasoko dute. Sarituek ez dute dirurik jasoko.

**3. Oinarria. Epaimahaia**
Sariak epaimahai batek emango ditu. Hauek osatuko dute epaimahaia:
- Lehendakaria: Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria.

- Kideak: Epaia ematen denean jardunean dauden Kontseilu Aholku-emailearen kideak gehi Lege-aholkularitzako eta Fitxategien Erregistroa eta Auditoria Zerbitzuko arduradunak.
- Idazkaria Kontseilu Aholku-emailearen idazkaria izango da.

Berdinketa egonez gero, lehendakariak hartuko du erabakia, saria ex aequo ematea erabaki ezean.

**4. Oinarria.- Ebazpena**

Epaimahaiaren erabakia 2014ko otsailaren 24an argitaratuko da, egun horretan ospatuko delako Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortu zeneko X. Urtemuga.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko abenduaren 19an

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS

**Iñaki Pariente de Prada**
Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria /
Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos